




Ibaildeko kirol gunea 2003an

Aurreikuspenak betez gero, Ibaildeko kirol gunea, Urumean, Loiola parean, 2003. urte erdialdean zabalduko da. Behin betiko proiektua idazten hasi da eta beraz, dena ondo joanez gero, egitasmoa bi urte barru bukatuta beharko luke. Azpiegitura berria Urumean egongo da, Quiron eritetxe parean eta ur kiroletarako zerbitzuak eskainiko ditu, arrauna edo piraguismoa egiteko, adibidez. Guztira, kirol munduko hamabi bat elkartek eta sei federaziok erabiliko dituzte Ibaildeko zerbitzuak.



328 etxebizitza Buenabistan

Udalak Buenabista ingurua berritzeko eta 328 etxebizitza egiteko asmoa du. Etxebizitzotatik ehun babes ofizialekoak izatea aurreikusi da. Buenabistako proiektua Loiolakoa, Herrerakoa edo Gomistegikoa bezalakoa da eta guztira, Udalak 535 milioi pezeta bideratuko ditu. Gogoratu behar da inguru honetan Buenabista etxea dagoela: etxea Udalarena da, bertan Donostiako musika talde askok entseiatzen dute eta egitasmoaren arabera, eraikin hau ere behar botako dute.



OKERRAK ZUZENDUZ

Ekainaren 15eko IRUTXULOn, hondartza sasoiari buruz egindako erreportaiari, urazpian topatutako trafiko seinale baten argazkia argitaratu genuen. Hala ere, ez genuen aipatu argazki hura Insub-arkeologia taldeko Luis M. Naya Garmendiak egin dela.

euskararen
donostia

plaza jaialdia

ANTZERKIA KALEAN

Hankagorri
Ekainaren 23an, 17.00etan
Antiguako Jose Maria Sert
plazan

TXOTXONGILOA

Plaza jaialdia
Ozendu
Haurrentzako musika,
dantza eta txotxongiloa
Ekainaren 23an, 17.00etan
Kursaal inguruan

MUSIKA

Plaza jaialdia
Lisabo: "Egun bat non-nahi"
Ekainaren 22an, 20.00etan
Kursaal inguruan

Intxaurrendon Kantuz
Ekainaren 22an
20.00etan kantu-jira
auzoan barrena
21.30etan kantu-afaria
Artzak Ortzeok elkartean

LIBURUAK

Liburu berriaren azoka
Ekainaren 29tik
uztailaren 8ra
Gipuzkoa plazan



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián